



Sorguneen mapa_ 2016



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

Sorguneen mapa _2016

1_ Sarrera _3

2_ Metodologia _4

3_ Guneen karakterizazio orokorra _7

4_ Ezaugarri fisikoak eta baliabide teknikoak _13

5_ Zer zerbitzu eskaintzen diren eta guneen erabilera _15

6_ Erabiltzaileak eta ikusleak _18

7_ Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak _22

8_ Azken iruzkinak _25

Parte hartu duten sorguneak _27

1 Sarrera

Azken urte hauetan Sorkuntza Fabrika esaten zaien horiei buruzko hainbat esperientzia desberdin sortu dira. Lagun eta talde sortzaileei beren sortze- eta ekoizte-prozesuetan laguntzeko baliabideak eta laguntza eskaintzeko azpiegitura eta hornidura egokiak dituzte sorguneek. Esperimentalak, berritzaileak, diziplinartekoak eta irekiak dira, eta sormena eta ikerkuntza dituzte ardatz nagusiak.

Politikak definituko badira, errealitatea ondo ezagutu behar da. Hainbat gune berri agertu izanak eta horiek baliabide publikoz ondo hornitu izanak agerian utzi dute zer-nolako beharra dagoen horiek tipifikatzen eta taxutzen lagunduko duen mapa eguneratu bat egiteko. Horren ondorioz, guneen mapa bat izan behar du txosten honek emaitza, lurraldeka, jarduera-arloka, zerbitzu-motaka eta antolatua.

Helburu hauek ditu, beraz, txostenak:

- Sorguneak identifikatzea, publikoak zein pribatuak
- Sorguneak dimentsio esanguratsu guztietan aztertzea
- Haien ezaugarrietan oinarrituta, tipologia definitzea

Bost ataletan antolatu da dokumentuaren muina, datu-analisiak osatua. Helburua da informazioa ahalik eta txukunen aurkeztea, atal horietan elkarrekin lotutako dimentsioak bilduta. Hauek dira atalak:

- Guneen karakterizazio orokorra: titularitatea, antzintasuna, lurraldea eta arlo artistikoa.
- Ezaugarri fisikoak eta baliabide teknikoak: tamaina, areto-kopurua, aretomotak eta baliabide teknikoak.
- Zer zerbitzu eskaintzan diren eta guneen erabilera: balio-kateko zer puntutan kokatzen diren, zer zerbitzu eskaintzan dituzten eta zer erabilera ematen zaien.
- Erabiltzaileak eta ikusleak: artatutako erabiltzaileak, helburu-ikusleak eta komunikabide propioak.
- Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak: aurrekontua eta lan-egitura.

Bloke bakoitzean, hau bezalako itzal batez nabarmenduko da testuaren pasarte bat. Itzalak begiz adieraziko du guneen titularitateari buruzko gairen bat noiz ukitzen den.

Azkenik, laburpentxo batean, datu esanguratsuenak eta aurkikuntza nagusiak azpimarratuko dira.

2_Metodologia

Azterlanaren helburuak aintzat hartuta, sorguneen mapa hau egiteko ikuspegi kuantitatiboa aplikatu da eta galde-sorta bat erabili da informazioa biltzeko tresnatzat.

EAEen esandako irizpideen arabera errolatuak diren 26 sorguneei pasa zaie inkesta. Gune horiek, izan ere:

- Sortzaile zein sortzaile-taldeei eskaintzen dizkiete, baliabideak eta elkarlaneko laguntza beren sortze- eta ekoizte-prozesuak garatu ahal izan ditzaten.
- Badituzte sorkuntza eta ekoizpena gauzatzeko moduko tokiak eta baliabideak.
- Kulturaren edo sorkuntzaren arloren baten esparruan daude kokatuta (hala nola ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoa, dantza, literatura, musika, antzerkia, zirkua, magia, bertsolaritza...)

Ez dira hartuko sorkuntza kulturalako gunetzat:

- Plataforma digitalak, horiek jarduerak egiteko moduko guneak izanagatik ere.
- Jarduera nagusia prestakuntza duten eskolak zein antzeko zentroak.
- Helburu nagusia turismoa edo merkataritza duten guneak.
- Gizarteratzeko guneak, non arte-jarduera kontu osagarria edo instrumentala baizik ez den.
- Kultura-artekaritza besterik egiten ez duten guneak.

Erroldan bildutako 29 guneetatik 26 erantzun diote galdetegiari. Kasu gutxi batzuk izan ezik, galdera gehien-gehien erantzun-tasa % 90etik gorakoa izan da.


Eranskinean azaltzen da erabili diren **galdera-sorta**. → Dimentsio hauetako informazioa biltzeko erabili da galdera-sorta:

- I. blokea: datu identifikagarriak
- II. blokea: gunearen jarduera orokorra
- III. blokea: datu ekonomikoak eta langileei buruzkoak



Araba

- > Azala, Kreaio Espazioa
- > Baratza Aretoa
- > Garaion Sorgingunea
- > KunArte



Bizkaia

- > Arropaineko Arragua
- > Auzo Factory Bolueta (Antiguo Eutokia)
- > Auzo Factory Cantera
- > Auzo Factory Irazabal Matiko
- > Auzo Factory Rekalde
- > Bilbao Eszena (Antzerki-baliabideen zentroa)
- > Consonni
- > Design Kabi
- > Edificio Ensanche
- > Fundación Bilbao Arte Fundazioa
- > Harrobia, Centro de Innovación en producción escénica
- > Histeria Kolektiboa
- > Kabia Espazioa
- > Utopian
- > WikiToki Elkarsorkuntzarako laborategia
- > ZAWP (Zorrotzaurre Art Work in Progress)
- > Zirkozaurre



Gipuzkoa

- > Biharrian Eraikin Industrial Biziberritu
- > Bitamine Faktoria
- > Gipuzkoako Dantzagunea
- > Habian! Fabrika Kreaktiboa
- > Tabakalera - Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

Bizkaia

Gipuzkoa

Araba



Parte hartu duten sorguneen zerrenda


Lurraldea	Izena	Helbidea	Fitxak
Araba	Azala, Kreaio Espazioa	Lasierra 15, 01428 Erriberagoiti	Ikus fitxa →
	Baratza Aretoa	Aldabe plazatxoia 4, behea, 01012 Vitoria-Gasteiz	Ikus fitxa →
	Garaion Sorgingunea	Otaza Auzoa z/g, 01206 Ozaeta - Barrundia	Ikus fitxa →
	KunArte	Abetxuko herria 14, 01013 Vitoria-Gasteiz	Ikus fitxa →
Bizkaia	Arropaineko Arragua	Iñigo Artieta 5, 48280 Lekeitio	Ikus fitxa →
	Auzo Factory Bolueta (Antiguo Eutokia)	Bilbo-Galdakao errepeidea 10, 48004 Bilbo	Ikus fitxa →
	Auzo Factory Cantera	Plaza Cantera 5 – 3. 4. solairua, 48007 Bilbo	Ikus fitxa →
	Auzo Factory Irazabal Matiko	Matiko 6, 48007 Bilbo	Ikus fitxa →
	Auzo Factory Rekalde	Gordoniz 44, 48007 Bilbo	Ikus fitxa →
	Bilbao Eszena (Antzerki-baliabideen zentroa)	Juan Gardeazabal 3, 48004 Bilbo	Ikus fitxa →
	Consonni	Conde Mirasol 13-LJ1D, 48003 Bilbo	Ikus fitxa →
	Design Kabi	Sabino Arana 8, 48013 Bilbo	Ikus fitxa →
	Edificio Ensanche	Ensanche plaza 11, 48009 Bilbo	Ikus fitxa →
	Fundación Bilbao Arte Fundazioa	Urazurrutia Kalea 21, 48003 Bilbo	Ikus fitxa →
	Harrobia, Centro de Innovación en producción escénica	Langaran 3, behea, 48004 Bilbo	Ikus fitxa →
	Histeria Kolektiboa	Cortes 29-31, 4F, 48003 Bilbo	Ikus fitxa →
	Kabia Espazioa	Luis Iruarizaga 7, 48003 Bilbo	Ikus fitxa →
	Utopian	Errotatxu industrialdea, D 1-2, 48990 Getxo	Ikus fitxa →
	WikiToki Elkarsozkuntzarako laborategia	Harrobi Plaza 5 – 2. solairua, 48007 Bilbo	Ikus fitxa →
	ZAWP (Zorrotzaurre Art Work in Progress)	Deustuko Erribera 43, 48014 Bilbo	Ikus fitxa →
	Zirkozaurre	Deustuko Erribera 70B, 48014 Bilbo	Ikus fitxa →
	Gipuzkoa	Biharrian Eraikin Industrial Biziberritu	Ubitxa kalea 16-18, 20600 Eibar
Bitamine Faktoria		Iñigo de Loiola 8, 20303 Irun	Ikus fitxa →
Gipuzkoako Dantzagunea		Pelotarien kalea z/g (Niessen eraikina), 20100 Errenteria	Ikus fitxa →
Habian! Fabrika Kreatiboa		Orereta 7, 20100 Errenteria	Ikus fitxa →
Tabakalera - Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa		Andre Zigarrogileen 1, 20012 Donostia	Ikus fitxa →

3_Guneen karakterizazio orokorra

Espazioen kokapena

Mapan nola banatzen diren erreparatuta, ikusi da ezen, **lurraldeka**, Bizkaian biltzen direla sorgune gehienak. Honela banatzen dira mapan; bilgune nabarmena hautematen da Bilbon (1. irudia).

1. Grafikoa. Sorguneen banaketa, lurraldeka. %



Iturria: geure datuekin sortua

1. irudia. EAEko guneen banaketa



Mapa honetan handituta ageri da Bilbo ingurua (2. irudia).



Titularitatea

Gunearen **titularitateari** dagokionez, 13 gune pribatu eta 13 gune publiko ditugu. Hala ere, **erakundearen titularitatearen** ikuspegitik begiratzuz gero, ikusten da badirela bi gune publiko erakunde pribatuek kudeatuak: biak ala biak irabazi-asmorik gabekak dira.

1. Taula. Guneen eta kudeatzaileen titularitatea

	Kudeatzaile pribatua	Kudeatzaile publikoa	Guztira
Gune pribatuak	13	0	13
Gune publikoak	2	11	13
Guztira	15	11	26

Iturria: geure datuekin egina


Honela banatzen da guneen titularitatea lurralde historikoetan:

- Bizkaian zein Gipuzkoan berdintsu banatzen dira gune pribatuak eta publikoak. Bizkaian 9 gune pribatu eta 8 gune publikoak dira, eta Gipuzkoan, berriz, 2 eta 3, hurrenez hurren.

- Aldiz, Arabako lau guneak pribatuak dira.


Mapan (3. irudian) ikus daitezke horiek. Elkarreraginda kontsulta daitezke mapa¹.

3. irudia. Guneen banaketa geografikoa, titularitatearen arabera. Behean, Bilbo inguruak, xeheago.



¹ <https://www.google.com/maps/d/edit?mid=1GDHmJtiN1uvyJynHIVS39fNqkoQ> (URL laburtua: <https://goo.gl/ORT5La>)

3. irudia. Guneen banaketa geografikoa, titularitatearen arabera. Behean, Bilbo inguruak, xeheago.




Antzinasuna

Guneen **antzinasuna** aztertuta, ikusi da azken urteetan ugartu egin direla guneak (1. grafikoa). Analizatu ditugun guneen % 42 2013tik aurrera sortuak dira.

1. grafikoa ikus dezakegu nola banatzen diren guneak bi aldagairekiko: ardatz batean haien antzinasuna ageri da, kategoria jakin batzuetan banatua, 1 izanik berrienak eta 4 berriz zaharrenak –10 eta 20 urte bitartekoak–.

2. Grafikoa. Sorguneak, antzinasunaren arabera. %



Iturria: Geure datuekin sortua

2. Taula. Guneen batez besteko antzinasuna, lurraldearen eta titularitatearen arabera


Hurrenkera	Lurraldea	Guneen titularitatea	Antzinasuna, batez beste (urteak)
1º	Bizkaia	Publikoak	8
2º	Bizkaia	Pribatuak	5,58
3º	Araba	Pribatuak	5,78
4º	Gipuzkoa	Pribatuak	3
5º	Gipuzkoa	Publikoak	2,67

Fuente: Elaboración a partir de datos propios

Arlo artistikoa: espezializatzea ala zeharkakotasuna

Sorgune bat **arlo artistiko** bakar batean **espezializatuta** dagoela jo da arlo horrek gunearen jardueraren % 60 baino gehiago biltzen duenean. Horrek ez du esan nahi beste arlorik jorratzen ez denik, aitzitik, esan nahi du badela gunea definitzen duen arlo bat. Arlo nagusi argirik ez baldin badago, dedikazioaren % 20 baino gehiago jasotzen duten arloak kontabilizatu dira. Emaitzek erakusten dutenez, arlo bakar baten “monolaborea” jorratzea izan da joera orokorra (3. grafikoa). Guneen erdiak baino gehiago espezializatzen dira arlo batean, lehen azaldutako irizpideen arabera.

3. Grafikoa. Sorguneak, arlo artistiko nagusien eta espezializazio-arloen arabera.




Iturria: Geure datuekin sortua

Zeharkakotasun nabarmeneko gune bakarra dago. Aztertutako 26 gunetatik 11k 2 edo 3 arlo nagusi dituzte.

1etik 5erak eskala batean, non 1 bereziki arlo bakar bati eskainitako guneei dagokien eta 5, berriz, zeharkakotasun handienekoei, batez besteko puntuazioa 1,8 da. Horrek esan nahi du badela nolabaiteko espezializaziorako joera, baina hori ez dela arau, beste arlo batzuekin batera izan ohi baitira.

Banaketa geografikoak erakusten du Bilbo inguruan pilatzen direla sorgune espezializatuak, gune gehienak pilatzen diren tokian, hain zuzen ere (4. irudia). Gainerako eremu geografikoan zeharkakotasun handiagorakoa da joera. Aipagarria da, halaber, Auzo Factory izeneko horiek Bilbon besterik ez direla. Sorgune espezializatuaren arlo nagusia adierazi da irudian, eta, pertzepzioa ez oztopatzearen, zeharkakoen kasuan kopurua besterik ez. Guneen fitxa bana bildu da Eranskinen.

4. irudia. Sorguneen banaketa geografikoa espezializazio-graduaren arabera.




4. irudia. Sorguneen banaketa geografikoa espezializaio-graduaren arabera.



Kontua xehe aztertuta, ikusten da arte eszenikoei eskaintzen zaiela dedikazio handiena (4. grafikoa). Hurrena ikusizko arteak eta sormen aplikatua datoz, eta horien atzetik, azkenik, ikus-entzunezkoak eta musika.

4. Grafikoa. Arlo bakoitzari batez beste eskaintako dedikazioa. %



Iturria: Geure datuekin sortua

EAzpimarratzeko modukoa da ezen 7 gune espezializatuetan, alegia, arlo bakar bati beren dedikazioaren % 60 baino gehiago eskaintzen dietenetan, 7 arte eszenikoei emanak direla (% 87,4ko dedikazioarekin), 2 ikusizko arteei emanak (% 90ko dedikazioarekin) eta 3 sormen aplikatuari (% 68,3ko dedikazioarekin). Aldiz, ez dago ikus-entzunezkoari edo musikari eskusiboki edo ia eskusiboki dedikatutako gune espezializaturik.


“Beste arlo artistiko batzuk” erantzuna eman dutenen artean, berriz, 5 dira arlo jakin bati erabat eta eskusiboki emanak. Horietatik 4 coworking guneak dira (Auzo Factory izeneko horiek²), eta bestea, berriz, bitxigintzari, oihalgintzari eta sormeneko ogibideei (hala nola arkitektura, diseinua eta irudigintza) dedikatua da. Auzo Factory horiek berezko profila dute sorguneen mapan.

5. grafikoan guneen espezializazio-gradua eta antzintasuna gurutzatu dira hirugarren aldagai batekin, guneen titularitatearekin hain zuzen, ikuspegi bateratua eskaintzeko. Espezializazioaren eta antzintasunaren ardatzen jatorria bi aldagai horien batez besteko balioekin bat dator.

Bi ardatzek definitzen duten planoan kasu kopurua adierazi da, kolore desberdinez publikoena eta pribatuena. Kasu bakoitzean, bunbuiloaren tamaina eta gune-kopurua proportzionalak dira.

² Bilbao Auzo Factory proiektuaren helburua da auzoetan jardura ekonomikoa sorraraztea, jakintza eta teknologia sakon erabiltzen duten enpresa-aukerak sustatuz, euskarri fisiko gisa erabilerarik gabeko eraikin birgaituak erabiliz eta sormenerako eta herritar, enpresa eta elkarten arteko elkarbizitzarako gune bilakaturik. Bilbo udalerriari estrategikoak zaizkion sektoreetan jarduten dute nagusiki. Ekonomia digitalari lotutako proiektuen inkubadore eta bizkorgarri gisa dihardute, proiektu horiek izanik hazteko eta enplegu egonkorra eragiteko gaitasun handikoa, batez ere zenbait sektoretako (hala nola bideojokoak, ikus-entzunezko eta pantaila anitzeko produkzioak, teknologia berrietarako edukia...) profesional gazteen artean.

5. Grafikoa. Antzinasuna eta espezializazioa guneen titularitatearen arabera



Iturria: Geure datuekin sortua
Oharra: bunbuiloaren tamaina eta gune-kopurua proportzionalak dira

Diagrama horretan ikus daitekeenez:

- Antzinasunari (ardatz horizontalari) dagokionez, berdintsu samar banatzen dira kasuak ardatz osoan zehar; alegia, dibertsitate handia dago.
- Espezializazioari (ardatz bertikalari) dagokionez, ordea, kasuak 1 eta 2 balioetan piltzeko joera dute. Esan nahi baita, ez dira hain homogeneoki banatzen ardatzean zehar, espezializazioarako joeraren ondorioz.
- Zehatzago esanda, ikusten da ezen guneen titularitatea eta espezializazio-maila elkarrekin korrelazionatuta daudela, gune espezializatu gehienak publikoak izanik. Kontuan izan behar da Auzo Factory izeneko guneak, coworkingean espezializatuak, publikoak direla.

- Gune pribatuak, berriz nabarmen espezializazio-maila aldakorragoa dute, sakabanatuago ageri baitira ardatz bertikalean: horrek esan nahi du arlo artistikoetan zeharkakoagoak direla.

Titularitatearen araberako batez besteko espezializazio-mailaren balioek horixe berresten dute:

3. Taula. Antzinasuna eta espezializazio-maila titularitatearen arabera

	Publikoak	Pribatuak
Batez besteko antzinasuna	2,23	2
Batez besteko espezializazio-maila	1,23	1,23

Iturria: geure datuekin sortua

4 Ezaugarri fisikoak eta baliabide teknikoak

Sorguneen baliabideak, horiek zentzu zabalean hartuta, aztertzen dira atal honetan; alegia: guneen tamaina, areto-kopurua, areto-mota, sorkuntzarako baliabide teknikoak eta komunikabide propioak.

Guneen **tamainari** dagokionez, 1.029,15 m²-koak dira, batez beste. Haatik, oso aldakorra da aldagai hau: guneen % 71 batez besteko balioaren azpitik daude.

Batez besteko baliotik urrunen dauden baloreak haren gainetik daude. Guztira guneen % 12,5 dira eta 12.500 metro karratu biltzen dituzte, azalera totalaren (24.699 m²) % 51, hain zuzen. Oinarritzat tamaina hartuta, horrek esan nahi du badirela potentzial handiko gune batzuk, gutxi, eta gune apal ugari.

4. Taula. Guneen banaketa tamainaren arabera

	Tamaina	Kontaketa (ehunekoa)
Txikia	0 - 199 m ²	4 (%16,17)
Txiki-ertaina	200 - 499 m ²	7 (%29,17)
Ertain-handia	500 - 999 m ²	5 (%20,83)
Handia	1.000 - 2.999 m ²	5 (%20,83)
Oso handia	3.000 - 6.000 m ²	3 (%12,5)
		24* (%100) *Bik erantzun ez zutenez, 2 item gutxiago dira

Guneen titularitateari dagokionez, 3,38 aldiz handiagoak dira publikoak pribatuak baino: 1.745 m² dira batez beste publikoak eta 517 m² batez beste pribatuak.


Harritzekoa ez denez, bada korrelazio positibo bat, ez baina perfektua, guneen azalaren eta haien areto-kopuruaren artean (0'60 puntu, 0k loturarik eza eta 1ek erabateko lotura adierazten duten eskalan). Alegia, azalera handiago izateak, oro har, areto-kopuru handiagoa izatea dakar berekin, baina ez beti. Guneek, batez beste, 5 areto dituzte (zehazki, 5,38). Aldagai honi buruzko informazioa eman duten 24 guneetan,

- › % 54k 1 - 3 areto dituzte
- › % 33k 4 - 9 areto dituzte
- › eta % 13k 10 baino gehiago (kopuru handiena: 24 areto).

Esan behar da, halaber, areto-kopuruari dagokionez ere aurretik daudela gune publikoak (7,18 areto guneko, batez beste; pribatuek, berriz, 3,85); haatik, sakabanaketa handiagoa dute batezbesteko balioarekiko. Zehazki, badira areto gutxiko makinatxo bat gune, eta bi gune, aldiz, areto ugarikoak. Bi horiek kalkulatik ezabatuz gero, gainerako 9 guneen batez besteko areto-kopurua 4,11 besterik ez litzateke.

Areto-motarik ugariena bulegoak badira ere (kudeaketarako baitira), sorkuntzari dagokionez, ugariena areto balioaniztunak, prestakuntza-gelak, erakusketa-gelak, egonaldiatarako guneak eta entsegu-gelak direla aurkitu dugu, hurrenkera horretan (6. grafikoa).

6. Grafikoa. Sorguneetako espazio-motak. %




Iturria: Geure datuekin sortua

Iragazteko irizpidetat guneen titularitatea hartuta, ikus daiteke ezen, jarduera artistikoarekin lotura estuagoa duten espazioei dagokienez,

- Gune pribatuek egonaldietarako espazioak eskaintzen dituzte batez ere. Halako alde nabarmenik gabarik ere, publikoek baino erakustegune, entsegu-gune eta areto balioaniztun gehiago ere badituzte sorgune pribatuek. Oro har, gune publikoek baino dibertsitate handiagoa ageri dute.

7. grafikoan ikus daiteke hori guztia.

7. Grafikoa. Areto-motak (kategoria hautatuak) titularitatearen arabera %



Iturria: Geure datuekin sortua

Guneen baliabide teknikoan artean badira helburutzat sormena dutenak, eta horietan hauek nabarmendu litezke:

- › Internet
- › Soinu-ekipoak
- › Argiztatze materiala
- › Bideokamerak eta argazki-kamerak
- › Proiektore eta pantailak


Kasu batzuetan ekipo profesional osoak deskribatu badira ere, gehienetan ematen du baliabideak, espezializatuak izanagatik ere, domestikoagoak direla.

5_Zer zerbitzu eskaintzen diren eta guneen erabilera

Gauzatzen duten jardueraren arabera karakterizatzen dira guneak atal honetan. Guneak balio-katean zer tokitan dauden, zer erabilera duten, zer jarduera profesional ostatatzen duten, zer proiektu egiten dituzten eta zer zerbitzu eskaintzen duten aztertzen du dimentsio honek.

Balio-kateari dagokionez, ikusten da ezen, batez beste, dedikazio handiena sorkuntzari eta ekoizpenari ematen zaiola (8. grafikoa). Horren ondoren datozen elementuek antzeko dedikazioa dute, prestakuntza izanik horietan aurrena, ondoren erakustea eta azkenik artekaritza.

8. Grafikoa. Balio-kateko katebegi bakoitzaren batez besteko dedikazioa. %




Iturria: Geure datuekin sortua

Grafikoak zorrotzago aztertuz gero, ikusten da ezen “Bestelakoak” kategoriaren balioa, neurri handi batean, Auzo Factory izeneko horiei zor zaiela (ekintzailatza eta coworking guneak dira).

Lehen egindako ariketa orain arlo artistikoekin errepikatuta, 1etik 5erako eskala batean, non 1 baita bereziki katebegi bakar bati dedikatutako guneen kategoria eta 5, berriz, zeharkakotasun handieneko guneen kategoria, batez besteko balioa 2,15 da. Horrek esan nahi du oro har bi lerrotan jarduten dela.

Balio-katearen barruko kokapenaren arabera dira eskaintzen diren zerbitzuak ere. Hainbat motakoak izan daitezke horiek. Eskain daitezkeen zerbitzuen sorta zabala ikus daiteke jarraian, eta bertan adierazi da zerbitzu bakoitza lagineko zenbat gunek eskaintzen duten (9. grafikoa).

9. Grafikoa. Sorguneetan eskaintzen diren zerbitzuak. %


Iturria: Geure datuekin sortua

Horietan ohiz eskaintzen diren lau zerbitzu hautematen dira berehala, guneen % 75ek baino gehiagok eskaintzen baitituzte. Oinarrizko pack bat dela esan liteke, zerbitzu hauek osatua:

- › Aholkua eta laguntza (% 96)
- › Aldi baterako lagapenak (% 85)
- › Baliabide teknikoak (% 81)
- › Komunikazioa (% 77)

Guneen titularitateari eta balio-kateari dagokienez, hauek azpimarratu behar dira:

- Sorkuntza-ekoizpenaren eta coworking-aren aldeko apustua dira gune publikoak. Azken horrek gorpuzten du grafikoko "Bestelakoak" kategoria.

10. GRAFIKOA. Arlo artistiko bakoitzari batez beste eskaintako dedikazioa, guneen titularitatearen arabera


Pribatuak **Publikoak**

Iturria: Geure datuekin sortua

- Gune pribatuek ere sorkuntza-ekoizpena dute jarduera nagusia, baina zeharkakotasunari eusten diote eta balio-kate osoan zehar banatzen dute beren ahalegina: prestakuntzan, erakusketan zein artekaritzan (nabarmen, azken honetan ere).

Zerbitzuei dagokienez, aldeak ez dira esanguratsuak. Lagapen iraunkorren eta aldi baterako kasuan eta beken kasuan bakarrik dira adierazgarriak gune pribatuetan, eta coworking-aren kasuan bakarrik gune publikoetan (11. grafikoa).

11. Grafikoa. Zerbitzu bakoitzari batez beste eskainitako dedikazioa, guneen titularitatearen arabera




Pribatuak Publikoak

Iturria: Geure datuekin sortua

Azken begiratu interesgarri bat izan liteke arlo bateko espezializazio-maila eta zeharkakotasuna balio-kateko katebegi bakoitzaren dedikazioarekin gurutzatzea (12. grafikoa).Hauek nabarmendu ditu begiratu horrek:

- Gune espezializatuak batez ere sorkuntza-ekoizpena dedikatuak dira; halaber prestakuntzara.
- 2-3 arlotara dedikatzen diren zeharkako guneak ere sorkuntzaekoizpena dedikatzen dira batez ere, baina horietan erakusketak presentzia handiagoa du.
- Artekaritzari dagokionez, bada 5 arlo dituen gune bat, baina kasu bakarra da

12. Grafikoa. Balio-kateko katebegi bakoitzaren dedikazioa, espezializazio-mailaren arabera. %



Prestakuntza Sorkuntza-Ekoizpena Erakusketa Artekaritza


Iturria: Geure datuekin sortua

6 Erabiltzaileak eta ikusleak

Pertsonen ikuspegitik, egiten diren jarduera-motei, artatzen diren erabiltzaileei, iristen diren ikusleei eta guneetako langileei buruzko kontuak bil daitezke.

Guneek egiten dituzten **jarduerari** (13. grafikoa) eta **erabilerei** (5. taula) erreparatzea izan daiteke haien ikusle eta erabiltzaileen lehen azterketa. Hori dela eta, aipagarria da denbora gehien eskaintzen zaien jarduerak herritarrentzat direla eta ez profesionalentzat. Izan ere, hurrengo bi jarduera ohikoenak erakusketak dira. Esan nahi baita, oro har, sektoreari berari eta artistei zerbitzatu nahia herritarrei zerbitzatu nahiarekin batera hautematen da:

13. Grafikoa. Sorguneetan egiten diren jarduerak %




Iturria: Geure datuekin sortua

Haatik, gunea titularitate pribatukoa den edo titularitate publikokoa den aintzat izanez gero (14. grafikoa), ikus daiteke badirela zenbait kontu interesgarri, hala nola hauek:

1. Gune pribatuek jarduera-kopuru handiena egiten dute (jarduera guztien % 76,18).
2. Gune pribatuek joera handiagoa dute jarduera dibertsoak eskaintzeko. Bestela esanda, eskaintza banatuagoa dute.
3. Gune publikoetan, berriz, kontzentratuago eskaintzen dira jarduerak, eta prestakuntzakoak nagusi bihurtuak dira, bereziki profesionali eskainitakoak. Gune publikoetan egiten diren jardueretan, % 65,79 dira prestakuntza-saioak.
4. Ia zeharo pribatuak dira sorguneek beste erakunde batzuekin batera gauzatzen dituzten elkarlan- eta nazioartekotze-proiektuak.

14. Irudia. Jarduerak gunearen titulartasunaren arabera %-tan

Pribatuak **Publikoak**

Iturria: Geure datuekin sortua

Guneen erabilerak, oro har, erabiltzaileen neurria ematen du, eta berdintsu banatuta ageri dira aukera hauen artean:

5. Taula. Sorguneen erabilera

Erabilera	Batez besteko ehunekoa
Kanpo-sorkuntza – Egonaldiak	% 20,04
Barne-sorkuntza, gunearen kudeatzaile edo titularrek berek egina	% 15,90
Erakustea	% 12,94
Sektorerako prestakuntza	% 12,74
Ingururako prestakuntza	% 12,68
Zeharkako proiektuak	% 11,71
Bestelakoak	% 18,27


Auzo Factory izenekoak kategorian honetan bildu dira; horren ondorioz, 'bestelakoak' kategoriako erabileraren zati handi bat inkubagailuarena egiten duten guneei dagokie.

Halaber identifikatu dira kategorian honetan artekaritza-proiektuak egiten dituzten bi gune, merkatu-laborategiak antolatzen dituen bat eta dokumentazioa eta ikerkuntza egiten duen beste bat.

Iturria: Geure datuekin sortua

Hala, ez dira harritzekoak **erabiltzaileen** analisiak eman dituen emaitzak (15. grafikoa). Lau kategoriatan sailkatu dira erabiltzaileak: sortzaile-elkarteak, banakako artistak, sormenean interesatuta dauden herritarrek eta sormenaren arloko enpresak eta enpresa-taldeak. Nolanahi ere, grafikoan ikus daitekeenez, azken kategorian hori da denetan urriena, eta sortzaile-elkartei, berriz, 26 guneetatik 22k ematen diete zerbitzua. Beraz, artistei ez ezik herritarrei ere ematen zaie arreta, lehenei sorkuntzak guneetan duen pisuagatik, eta bigarrenei, berriz, prestakuntza eta erakusketa alorretan guneek duten bokazio publikoagatik.


15. Grafikoa. Sorguneetako erabiltzaileen tipologia. %



Iturria: Geure datuekin sortua

Ikusleei dagokienez, gogora ekarri behar da gune askok erakusketari eta artezkaritzari ematen dietela beren jardueraren zati handi bat (16. grafikoa).

16. Grafikoa. Sorguneetako ikusleen kategoriak. %



Iturria: Geure datuekin sortua

Ez dago alde handirik gune publikoen eta pribatuen artean erabiltzaileei dagokienez; pribatuen kasuan, berriz, handixeagoa da aldea.

6. Taula. Xede-ikusleak eta artatutako erabiltzaileak, guneen titularitatearen arabera

		Gunearen titularitatea		
		Publikoa	Pribatua	Guztira
Ikusleak	Arruntak	%46,15	%76,92	%61,54
	Espezifikoak	%30,77	%30,77	3%0,77
	Kolektibo eta elkarteak	%53,85	%30,77	%42,31
	Familiak/eskolak	%46,15	%38,46	%42,31
	Turistak	%0	%0	%0
Erabiltzaileak	Banakako artistak	%61,54	%92,31	%76,92
	Sortzaile-elkarteak	%69,23	%100	%84,62
	Enpresak eta enpresataldeak	%61,54	%38,46	%50,00
	Sormenean interesatuta dauden herritarrak	%53,85	%84,62	%69,23

Iturria: Geure datuekin sortua

Ikusleei dagokienez, hemen aurkitu dira alde handienak:


- 1) Ikusle arruntak: gune pribatuen % 77k (13tik 10ek) erantzun dute baietz; eta publikoen kasuan, berriz, erdiak baino gutxiagok.
- 2) Ikusle gisa diharduten kolektibo eta elkarteei dagokienez, gune publikoen % 54k erantzun du baietz; pribatuen kasuan, berriz, 23 puntu beherago dago baiezkoen ehunekoak (% 31k dio baietz).

Erabiltzaileei dagokienez, bada gertaera nagusi bat:

- 1) Gune pribatuek banakako artistak, sortzaileen elkarteak eta sormenean interesatuta dauden herritarrak artatzen dituzte nagusiki.
- 2) Aldiz, gune publikoak sormenaren arloko enpresak eta enpresa-taldeak artatzen nabarmen dira. Gogora ekarri behar da ezen jarduerak analizatzean bertan hautemana zela profesionalen trebakuntzaren aldeko joera nabarmena.

Hala, indarra hartzen du sektore publikoak enpresa pribatuei lagundu egiten dielako eta hutsuneak espezializazio handiagoz estaltzen dituelako pertzepzioak. Sektore pribatuak, aldiz, zeharkiago estaltzen ditu eremuak, jarduerak dibertsifikatuta eta erabiltzaile dibertsago batzuk artatuz.

Beren ikusleekin komunikatzeko eta erabiltzaile berriak erakartzeko, sare sozialak erabiltzen dituzte sorguneez komunikazio-baliabide propio gisa. Oso erabilera handia dute oinarriko tresna arruntek (Web, Facebook, Twitter eta Newsletterrak) (17. grafikoa). Arlo artistikoen eta jardueren arabera, bestelako tresna batzuk ere erabiltzen dituzte gune batzuek.

17. Grafikoa. Komunikazio-tresnen erabilera. %

Iturria: Geure datuekin sortua

“Bestelakoak” kategorian, tresna bakar bat baizik ez dute hainbat gunek partekatzen: Instagram, hain zuzen (3 gunek adierazi dute erabiltzen dutela). Horrez gain, azpimarratzekoa da sorgune batek bere magazine propioa argitaratzen duela.

Horri guztiari gehitu behar zaio, azkenik, sareetan erabiltzen diren **hizkuntzei** dagokienez, guneek euskara, gaztelania eta ingelesa erabiltzen dituztela (26 gunetik 25ek, 24k eta 13k, hurrenez hurren).

7 Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak

Ikuspegi orokor bat eskaintzearen, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak analizatzen amaituko dugu. Aurrekontuei dagokienez 21 erantzun jaso ditugu 26 guneetatik. Gainerako kasuetan, gune baten aurrekontua argitaratutako datuetatik lortu dugu eta beste lauen kasuan informazio publikoetan eta zenbait datu propioetan oinarrituta zenbatetsi da³.

7. Taula. Sorguneen aurrekontua eta finantzaketa

	Aurrekontu osoa	Batez besteko aurrekontua	Ekarpen publikoa, batez beste	Ekarpen pribatua gehi propioa, batez beste
Sorgune guztiak	10.081.340 €	387.743 €	%75,65	%34,22
Sorgune guztiak Tabakalera izan ezik	4.432.700 €	177.308 €	%72,56	%34,65

Iturria: Geure datuekin sortua

Argigarriagoa da guneen titularitatearen arabera analizatzea (8. taula). Sorgune publikoen aurrekontu osoa pribatuena baino handiagoa da, bai Tabakalera bertan bilduta, bai analisitik kanpo utzita ere. Sorgune publiko guztien aurrekontuaren % 56 dagokio gune honi.

8. Taula. Aurrekontua eta finantzaketa guneen titularitatearen arabera

	Aurrekontu osoa	Batez besteko aurrekontua	Ekarpen publikoa, batez beste	Ekarpen pribatua gehi propioa, batez
Sorgune publikoak	8.213.640 €	631.818,46 €	%93,40	%13,2*
Sorgune publikoak Tabakalera izan ezik	2.565.000 €	213.750 €	%91,79	%15,03*
Sorgune pribatuak	1.867.700 €	143.669,23 €	%62,97	%41,23*

Iturria: Geure datuekin sortua


*Batura 100 baino handiagoa da, zenbait guneen finantzaketa erabat publikoa baita (Auzo Factory izenekoena bereziki) edo erabat pribatua, eta horrek emaitza desitxuratu egiten baitu.

Mendekotasun handia dute gune pribatuek ekarpen publikoarekiko, nahiz eta, ez dago zalantzarik, finantzaketa pribatu nabarmena ere baduten.

³ Lau kasuak Auzo Factory horiek dira. Balio galduari zenbatekoa esleitzeko, Bilboko Udalaren 2015eko aurrekontuko informazioa hartu da eta proportzionalki banatu da, aintzat hartuz langilekopurua, coworkingeko lagapen-kopurua eta sorgunearen tamaina (m2-tan) (sorgune baten kasuan azken aldagai hori ere balio galdua zen, eta batez besteko azalera esleitu zaio).

Sorgune pribatuei ematen zaien finantzaketa publikoa lurralde historikoaren arabera aztertzen badugu (18. grafikoa), ikus daiteke mendekotasun-maila Arabako % 52 eta Gipuzkoako % 62,5 bitartekoa dela:

18. grafikoa. Gune pribatu zein publikoek jasotzen duten ekarpen ekonomiko publikoa, lurraldearen arabera. %




Gune pribatuen finantzaketa publikoa (%)

Iturria: Geure datuekin sortua

Azterketa bera arlo artistikoen gainean eginez gero, ikusten da ezen, arte eszenikoetan espezializatutako guneak izan ezik, gune espezializatuak finantzaketa publiko handiagoa jasotzen dutela zeharkako guneek baino. Hori dela eta, gogora ekartzeko modukoa da lehen aipatutako joera, alegia, gune pribatuak zeharkakoak izateko eta publikoak, berriz, espezializatuak izateko joera. Horrexek esplikatzen ditu 19. grafikoan ageri diren emaitzak.

19. Grafikoa. Ekarpen ekonomiko publikoa arlo artistikoaren arabera. %



Iturria: Geure datuekin sortua

*Kategoria barruko gune-kopurua

Lan-arloari dagokionez, aztertu ditugun 26 sorguneek 172 langile biltzen dituzte guztira. Horien sexuaren araberako banaketari erreparatuta, esan daiteke sektore feminizatua dela; lan-kategorien araberako banaketari dagokionez, berriz, batez ere teknikariz osatutako sektorea dugu. Sorgune publikoek pribatuek baino langile gehixeago biltzen dituzte, baina ez askorik (9. taula).

9. TAULA. Lan-arloaren analisia, hainbat ikuspegitatik helduta

Biltze-aldagaia	Kategoriak	Langileen ehunekoa	Dedikazioa
Sexua	Emakumeak	%62,79	%59,76
	Gizonak	%37,21	%61,64
Lan-kategoria	Zuzendaritza	%16,28	%74,23
	Administrazioa	%22,67	%33,64
	Teknikariak	%43,02	%58,93
	Mendekoak	%18,02	%46,19
Sorgunearen titularitatea	Publikoa	%57,56	%56,99
	Pribatua	%42,44	%61,18

Iturria: Geure datuekin sortua

Lan-kategorien banaketa sexuka aztertuta, ikusten da patroia berbera dela bi sexuetan, eta teknikariak direla langile ugariak gizonen zein emakumeen artean (10. taula).

10. Taula. Lan-kategorietako enplegua, sexuaren arabera

	Emakumeak		Gizonak	
	Langile guztiekiko ehunekoa	Dedikazioa	Langile guztiekiko ehunekoa	Dedikazioa
Zuzendaritza	%11,05	%69,08	%5,23	%79,38
Administrazioa	%17,44	%61,57	%5,23	%5,71
Teknikariak	%25,00	%61,29	%18,02	%56,67
Mendekoak	%9,30	%35,71	%8,72	%56,67

Iturria: Geure datuekin sortua

